

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
DIDAKTIKA OROKORRA	141201	2024/2025
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
Lehen Hezkuntzako Gradua	1	1
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizko prestakuntza	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Ainhoa Bilbao Martínez		

Justifikazioa

Didaktika Orokorra irakasgaiak, maistra eta maisu-gaiei, euren irakaz funtzioa arduraz eta profesionaltasunez betetzeko erreferentzia marko baliogarria eskaintzen die. Irakaskuntzaren zientzia, arte eta teknologia moduan, Didaktika Orokorrak izaera profesional espezifikoa eskaintzen dio maisu eta maistrek burutu beharreko lan eta ogibideari. Izatez, hezkuntza lanean diharduten profesionalei, irakaskuntzaren fase desberdinetan beharrezkoak diren erabakiak eta ekimenak oinarritzeko euskarri teoriko-praktikoa eskaintzen die arlo honek.

Maistra eta maisu-gaiak irakaskuntzaren ikuspegi profesionalean barneratzeak, ondoko ardatzen azterketa sakona eskatzen du, eta horietan jartzen du arreta irakasgaiak:

- Ikasketa prozesua. Irakaskuntzaren helburu nagusi, ezinbestekoa da ikasketa prozesuaren azterketa tekniko gauzatzea, maistra eta maisu-gaiek euren etorkizun profesionalean horren garapen eta bideratzean lan kualifikatua egin dezaten.
- Irakaskuntza prozesua. Hezkuntza sistemaz zabal hedaturiko eredu formatibo tradizionalari lotuta, maistra eta maisu-gaiek, irakaskuntza lanaren ikuspegi sinple eta murriztarekin hasten dira beraien ibilbide profesional akademikoa. Hori dela eta, beharrezkoa da definizio eta azterketa profesional lan sakona betetzea, irakaskuntzaren ikuspegi berri baten eraikuntza ahalbidetzeko (ikasketan oinarritutako irakaskuntza, eta curriculumak eskaintako erreferentzia marko komunean ardazturiko irakaskuntza).
- Lehen Hezkuntzako curriculumak. Curriculumak, irakasle eta ikasleek elkarrekin bete beharreko bidearen ikuspena eskaintzen duen erreferentzia marko komuntzat aztertu eta erabiltzen da; bertan, egitasmo konpartitu horren betetzea ahalbidetzeko neurri koordinatuak integratzen dira, profesional desberdinen lan bateratua ziurtatzeko.
- Ikasketaren ebaluazioa. Irakaz funtzioen artean, ikasketaren ebaluazioa egiteko konplexu, arazotsu eta garrantzitsuen artean ageri da aldi berean. Irakasgai honek arreta berezia jartzen dio osagai kurrikular honi, alde batetik, ebaluazio lanean ohikoak diren akats eta hutsuneak konpondu, eta bestetik ikasketaren estimulazioan duen eragin nabarmena ikuspegi pedagogikotik ustiatzeko.

Lau ardatz hauek, etorkizun gertuan irakaz lanari ekin, eta beraien ibilbide profesional osoan ikasten eta hazten jarraitzeko oinarria eskaintzen die ikasleei. Irakasgai honek curriculumak eskainitako erreferentzia markoan integraturiko programazioak egiteko prestatzen ditu maistra eta maisu-gaiak, eta Lehen Hezkuntzako ikasleriarentzat aurreikusitako ikasketak nahitan eta kontzienteki bultzatzeko baliabide teknikoak eskaintzen dizkie (osagai metodologikoak, ebaluazio aukera desberdinak, erabilera estrategikoa egiteko baldintzak, eta abar).

Aurrebaldintzak

-

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- **TALDE LANA. Maila 1:** Taldeko zereginetan aktiboki parte hartzea eta konfiantza, zintzotasuna eta elkarlana sustatzea.

Berriazko gaitasunak

- Lehen Hezkuntzako curriculumak eskainitako marko komunean adostutako erabakiak eraginkortasunez bideratzeko, ikasketa egoera egokiak nahitan eta modu arrazoituan planifikatzea.
- Lehen Hezkuntzako curriculumean aurreikusitako konpetentzien balorazio eta garapenerako, ebaluazio sistema tradizionalen egokitasun eta potentzialtasun didaktikoa aztertzea.
- Lehen Hezkuntzako curriculumean jasotako konpetentziak lortzeko, estrategia metodologiko eraginkorrak nahitan eta modu arrazoituan diseinatzea.



Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Laudato si' Helburuak irakasgaiari



GIH 4 Kalitatezko hezkuntza

2. Ikaslea jabetzen da hezkuntza ondasun publiko, munduaren ondare, oinarritzko giza eskubide eta beste eskubide batzuk betetzeko oinarri dela. Ikuspegi honetatik, ikasleen hezkuntza eskubideak (zuzentasuna, mugikortasuna, ikasketa eta garapen integrala, besteak beste) eta hezkuntza sistemaren kalitatea bermatzeko, Lehen Hezkuntzako irakasleek jokatzen duten papera aztertuko da.



LSH 4 Hezkuntza ekologikoa

Curriculuma eta haren garapena ekologia integralaren espirituan birpentsatzea eta berriro diseinatzea, kontzientzia ekologikoa eta ekintza eraldatzailea sustatzeko.

Edukiak

1. Ikasketa eta irakaz egitekoa.
2. Lehen Hezkuntzako curriculuma.
3. Lehen Hezkuntzako curriculuma Euskal Erkidego Autonomikoan: programa eta programazioa.
4. Ikasketaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako curriculumean.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Irakasgai honetan jarraitutako irakaste-ikaste estrategiak, MAUD (Modelo Aprendizaje Universidad de Deusto) ereduari erantzuten dio, lau fase nagusi integratuz:

- **Inguru esperientziala:** Fase honetan, ikaslea aukeratu duen ogibidearen errealitatera gerturatzeko egitekoak proposatzen dira. Horretarako, norberak hezkuntza sisteman bizi izandako esperientzien azterketa, eta horietatik eratorritako ikasketa eta irakaskuntza fenomenoaren ikuspegi sakonak agerian jartzeko ariketak egiten dira (debate eta eztabaidak, aldez aurreko ideien agertzea, kasuen azterketa, eta abar). (ECTS %10 inguru).
- **Behaketa gogoetatsua:** Bigarren fase honetan, irakaskuntzaren errealitatea (hezkuntza errealitatea eta instituzionala) eta horri lotutako erronka nagusien azterketa kritikoa bideratzeko egitekoak planteatzen dira (hausnarketa gidatuak, debate eta eztabaidak, programazio eta dokumentuen azterketa, adibide edo kasu erreal edo simulatuen azterketa, besteak beste). (ECTS %10 inguru).
- **Kontzeptualizazioa:** Hirugarren fase honek kontzeptualizazio ariketak integratzen ditu, ikaslea kalitatezko erreferente teoriko eta praktikoekin harremanetan jartzen dutenak. Horretarako besteak beste, ondoko egitekoak garatzen dira: irakaslearen edo beste agente baten aurkezpenak, dokumentuen azterketa, edo laburpen, sakontze edo berrantolamendu ariketak horietatik aurrera. (ECTS %35 inguru).
- **Esperimentazio aktiboa:** Laugarren fase honetan ikaslearen esperimentazio aktiboa bultzatzeko egitekoak burutzen dira (osagai eta proposamen kurrikularren azterketa, diseinu eta prestakuntza) (ECTS %30 inguru).
- **Ebaluazioa:** Ereduaren bosgarren fasea bat dator ondoko ebaluazioarekin, modalitate formatiboan (jardueren berrikusketa eta zuzenketa, edo koebaluazio edo autoebaluazio dinamika espezifikoak) zein sumatiboan (hurrengo atalean aurkezten den terminoetan) garatuko dena. (ECTS %15 inguru).

Ebaluazioa

Gure kalifikazio sistemak hiru osagai izango ditu kontutan:

- Lehen ebaluazio espezifikoa (%30)
- Bigarren ebaluazio froga espezifikoa (%50)
- Talde lanari lotutako enkargu praktikoak (%20)

Kalifikazio irizpideak berdinak dira ohiz kanpoko deialdian, baina gainditu gabeko atalen balorazio isolatua egiteko aukera dago. Baldintza konkretuak ohiko deialdian egiaztatutako emaitzen arabera ezarriko dira.

Adimen artifizialaren erabilera:

Adimen artifizialeko tresnak edo horien bidez sortutako edukien erabilera ikasgaiko zeregin eta lanen orientabide espezifikoetan arautuko da. Zer tresna eta nola erabil daitezkeen adierazten ez den bitartean, ez dago baimenduta horiek erabiltzea.

Dokumentazioa

Ikasleek irakasgai honetan erabili beharreko dokumentazioa **Ikasketa Koadernoetan** dago antolatuturik, txosten hauek irakasleak prestatu, eta unitate bakoitzean aurkezten direlarik. Modu antolatu eta ordenatuan, koaderno hauetan elementu teoriko nagusiak, eta horien garapenean lan egiteko jarduera desberdinak tartekatzen dira. Era berean, erreferentzia bibliografikoen atal bat integratzen da, testuan egindako zitak argitu, eta ikasleei kontsulta eta sakontze lana egiteko argibideak luzatzeko.

Garrantzitsuenen artean:

- Barberá, E. (2005). *Evaluación de la enseñanza, evaluación del aprendizaje*. Edebé.
- Bermejo, B. (Coord.). (2011). *Manual de didáctica general para maestros de educación infantil y primaria*. Pirámide.
- Díaz Alcaraz, F. (2002). *Didáctica y Currículo: Un enfoque constructivista*. Ediciones de la Universidad de Castilla – La Mancha.
- Etxague, X. (koord) (2004). *Didaktika Orokorra*. Erein.
- 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa
- Santos, M. (2003). *Una flecha en la diana. La evaluación como aprendizaje*. Narcea.
- Gibbs, G. (2003). Uso estratégico de la evaluación en el aprendizaje. Hemen: S. Brown, & A. Glasner (Edits.), *Evaluar en la universidad. Problemas y nuevos enfoques* (pp.61-74). Narcea.
- Gibbs, G., & Simpson, C. (2009). *Condiciones para una evaluación continuada favorecedora del aprendizaje*. Octaedro-ICE Universidad Barcelona. Eskuragarria <http://www.octaedro.com/ice/pdf/13CUADERNO.pdf>
- Hezkuntzaren Lege Organikoa. 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (2020ko Testu bateratua)
- Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.
- Salinas, D. (2002). *¡Mañana examen! La evaluación: ente la teoría y la práctica*. Graó.
- Sanmartí, N. (2007). *10 gako. Ikasteko ebaluatzen*. Graó.